



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN OSOKO BATZARRERAKO DEIA. BIHAR,  
URRIAREN 31N, GOIZEKO 9ETAN HASITA, OSOKO BATZARRA IZANGO DA  
GERNIKAKO BATZARRETXEAN

## **Biharko Osokoan izendatuko dira BBK-ren Batzar Orokorrean Bizkaiak izango dituan ordezkariak**

*Bilbon, 2012ko urriaren 30ean*

Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak biharko, urriaren 31ko eguaztenerako, egin dau Osokoko Batzarrerako deia. Batzarra Gernikako Batzarretxean izango da, goizeko bederatzietan hasita. Biharkoa 2012ko zortzigarrena izango da eta lehenengo aztergaitzat Bilbao Bizkaia Kutzaren Batzar Orokorrean Bizkaiko Lurralde Historikoak dituan ordezkarien izendapena dauka. Azken Foru Hauteskundeetan alderdiek ataratako batzarkide kopuruaren arabera, Bizkaiak dituan 5 ordezkarietatik bi Euzko Abertzaleak Taldeari (EAb) jagokoz, eta beste hiruretatik bana Bildu Taldeari, Socialistas Vascos Taldeari eta Bizkaiko Talde Popularrari. Hurrengoak dira proposatutako ordezkariak: Luis M<sup>a</sup> Arateax eta Naiara Zamalloa (EAb), Antón Borja (Bildu), Luis Lupiañez (SV) eta Jesús Sanz (Bizkaiko Talde Popularra).

Gai-zerrendako hurrengo aztergaia da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua sortzeko Foru Araugaia. Kontseilu hori Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren ordezko izateko sortzen da. Aldundiak hori sortuazoten dau “Bizkaiko Lurralde Historikoan iraunkortasunerako politikak sustatu eta kontrolatzeko”. Aldaketa horregaz, bada, Aldundiak helburu bi ditu; batetik, Bizkaiko Batzar Nagusietako Talde guztiek parte hartzea eta, bestetik, gastua arrazionaltasunez egitea.

Hurrengo aztergai biak Foru Dekretu Arauemaileak sendesteari buruzkoak dira. Lehenengoak Bingo-joko elektronikoaren jokoaren tributazioa arautzen dau — abuztuaren 15ean indarreratu zan —, eta bigarrenak Balio Erantsiaren gaineko Zergan zenbait aldaketa dakar, hain zuzen be handitu egingo dira-ta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-tasa orokorra zein txikitua, % 18 eta % 8 izatetik % 21 eta % 10 izatera pasatuko diralako hurrenez hurren. BEZari buruzko araudiaren aldaketa horrek irailaren 1etik harako indarra dauka eta Rajoyren Gobernuak uztailean dekretatutako aldaketeagazko egokitzapena dakar.

Hurrengo, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua aldatzeari buruz Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arau-Proposamena aintzat hartzeaz eztabaidatuko dau Osokoak. Proposamen horren bitartez



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

lortu gura da zerga iruzurra detektatzeko ikuskaritza-egitamu bateratuak izatea “zerga iruzurraren aurkako borroka areagotzeko”, administrazioek alkarri zerga datuak laga eta ikuskaritza bateratua egin ahal izateko.

Osoko gai-zerrendan zenbait ahozko erantzun-eske dagoz. Horretariko lehenengoan Bildu Taldeak Aldundiari galdetzen deutso ea finantza aurreikuspen barririk dagoan “Interbiak-ek eragindako zorraren inguruan, MHS-ren edo Artxandako Tunelen bidesarrietan bildutakoan izandako murrizketea dala eta”. Egin-eginean erabiltzaile kopuruan izandako beherakadea da Socialistas Vasco Taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen baten gaia; Proposamen horretan eskatu egiten jako Aldundiari “alkarrizketea edegi dagiala eragindako gizarte eragileakaz, horren helburu izanik adostasun politikak jartea AP-8 autopistea edo Hegoaldeko Saihesbidea deritxanaren erabilera suspertzeko”. Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako zuzenketa-eskearen bitartez eskatu egiten deusie Foru Aldundiari “bono sistemaren bat” ezarri dagiala erabiltzaileak erakarteko errepede horretara.

Bizkaian gure esne sektoreak bizi dauen egoera larriari buruz Bildu Taldeak aurkeztutako ahozko erantzun-eskea da Osoko Batzarraren beste aztergaietariko bat. Bizkaiko Talde Popularrak be beste ahozko erantzun-eskea bat aurkeztu dau jakiteko ze erispide erabili dauen Gizarte Ekintza Sailak desgaitasundunentzako eguneko zentro barria jarteko Durango dala lekurik egokiena erabagiterakoan.

Ohiko danez, Osoko Batzarraren azken zatian, zenbait Arauz Besteko Proposamen dagoz. Horretariko baten bitartez, Bizkaiko Talde Popularrak eskatzen dau Bizkaiko Foru Aldundiak onartu dagizala Guggenheim Bilbao Museoaren ibilbidea aztertu eta ebaluatzeko Ponentziaren txostenak, Eusko Legebiltzarreko Kulturako Batzordeak 2012ko ekainaren 18an onartu ebanak, jasotako gomendioak.

Bildu Taldeak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamen baten bitartez Madrileko Gobernuari eskatu gura jako gaixotasun larri eta sendaezinak dituen hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna. Osokoaren azken aztergaia izango da Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreagoari eskatzeko “adostu dagiela jartea Barakaldoko udalerrian EHU/UPVgaz lotuta edo irakasle eta ikertzaileen Egoitza eta Ikerketa Zentroyen bat edo, halan balitz, unibertsitate fakultate barriren bat, Bizkaiko unibertsitate eskaintza modu orekatuan garatzea bermatzearren”.

---



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

CONVOCATORIA DE PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA.  
MAÑANA MIÉRCOLES, 31 DE OCTUBRE, A LAS 9 HORAS EN LA CASA DE  
JUNTAS DE GERNIKA

## **El Pleno de mañana elegirá a los representantes de Bizkaia en la Asamblea de la BBK**

*Bilbao, a 30 de octubre de 2012.*

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha convocado un nuevo pleno para mañana miércoles, 31 de octubre, que se celebrará en la Casa de Juntas de Gernika a partir de las nueve de la mañana. El octavo pleno del año 2012 arrancará con la elección de los 5 representantes de Bizkaia en la Asamblea de la Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK). Dos de los titulares corresponderán, según la representación parlamentaria obtenida en las últimas elecciones forales, a personas designadas por el Grupo Nacionalistas Vascos (NV) y los otros tres se repartirán entre los grupos Bildu , Socialistas Vascos (SV) y Popular Vizcaíno (GPV). Las personas propuestas son: Luis M<sup>a</sup> Arteatx y Naiara Zamalloa (por NV), Antón Borja (Bildu), Luis Lupiañez (SV) y Jesús Sanz (GPV).

La sesión continuará con el Proyecto de Norma para crear el Consejo para la Sostenibilidad de Bizkaia, un órgano que sustituye al Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia (ISB) y que, según la Diputación, nace para “ejercer las funciones de impulso y control de las políticas de sostenibilidad del territorio”. La Diputación persigue con este cambio un doble objetivo: la participación de todos los representantes de las Juntas Generales de Bizkaia y la racionalización del gasto público.

Tras la votación del Proyecto de Norma, el pleno proseguirá con la ratificación de dos Decretos Forales Normativos por los cuales se regula la tributación de la modalidad del juego del bingo electrónico, con efecto desde el pasado 15 de agosto, y se modifican algunos aspectos del Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) en donde destaca la elevación de los tipos impositivos general y reducido de este tributo, que pasaron del 18 y 8%, al 21 y 10%, respectivamente. Esta modificación de la normativa sobre el IVA, con efectos desde el pasado 1 de septiembre, supone la adaptación al cambio de este impuesto decretado por el Gobierno de Rajoy en el mes de julio.

A continuación , el pleno debatirá una Proposición de Norma presentada por el Grupo Socialistas Vascos para la modificación de la Norma Foral General Tributaria 2/2005, de 10 de marzo, para la realización de planes de inspección conjunta con otras Administraciones tributarias con la intención de “intensificar la lucha contra el fraude fiscal” mediante la cesión de datos fiscales entre administraciones.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

La sesión plenaria continuará con varias Preguntas Orales. La Diputación tendrá que responder a la petición informativa del Grupo Bildu que quiere conocer si se han realizado nuevas previsiones financieras para “hacer frente a la deuda generada por Interbiak ante el descenso de la recaudación obtenido de los peajes en la Variante Sur Metropolitana y los Túneles de Artxanda”. Precisamente, el descenso de usuarios es el argumento utilizado por el Grupo Socialistas Vascos para buscar el apoyo de la cámara a una Proposición no de Norma que solicita el establecimiento, por parte de la Diputación, de un diálogo con agentes sociales para “ establecer políticas de consenso que potencien el uso de la AP-8”. El Grupo Popular solicita a través de una enmienda la creación de un “sistema de bonos” para fidelizar usuarios.

Asimismo, el Grupo Bildu quiere conocer también las medidas concretas que la Diputación va a adoptar respecto a la "grave" situación por la que atraviesa el sector lácteo en Bizkaia . Por su parte, y a través también de la fórmula de la Pregunta Oral, el Grupo Popular desea saber el criterio que ha seguido el Gobierno foral para proponer que sea Durango el municipio en donde se instale el nuevo centro de día para personas con discapacidad intelectual.

Como es habitual, el pleno se cerrará con diversas Proposiciones No de Norma. El Grupo Popular Vizcaíno ha presentado una iniciativa para que las Juntas Generales insten a la Diputación a asumir las recomendaciones contempladas en el informe de la Ponencia de análisis y evaluación de la trayectoria del Museo Guggenheim Bilbao aprobado por la Comisión de Cultura del Parlamento Vasco, el 18 de junio de 2012.

La sesión continuará con el debate de una proposición de Bildu para pedir al Gobierno de Madrid la puesta en libertad condicional de 13 presos de ETA que padecen “enfermedades graves e incurables”, según la coalición abertzale. Y, por último, el pleno terminará con una iniciativa de los populares para que la Diputación Foral de Bizkaia, el Gobierno Vasco y la UPV acuerden la instalación en el municipio de Barakaldo de un Centro de Investigación y Residencia de profesores e investigadores o, en su caso, el establecimiento de nuevas facultades universitarias, tras el vacío generado con el traslado a Bilbao del centro universitario de Minas.